

**Erdi Mailako
Lanbide
Heziketa**

**Gizarte eta kultur zerbitzuak
eta komunitatearentzako
zerbitzuak**

Mendekotasun egoeran dauden pertsonei arreta egiteko teknikaria



**Nafarroako
Gobernua**  **Gobierno
de Navarra**



Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza
El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egiteko teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Gizarte- eta osasun-arreta etxean

- Gizarte- eta osasun-laguntza behar duten pertsonen etxean arreta fisikoa emateko esku-hartzeak garatzea.
- Gizarte- eta osasun-laguntza behar duten pertsonen etxean arreta psikosoziala emateko esku-hartzeak garatzea.
- Bizikidetzako unitatearen kudeaketarekin eta funtzionamenduarekin zerikusia duten jarduerak garatzea.

Gizarte- eta osasun-arreta erakunde sozialetan mendekotasun egoeran dauden pertsonen

- Pertsonen eta haien inguruneari erakunde-esparruan arreta egiteko esku-hartzeak, diziplinarteko lantaldeak adierazitakoak, prestatzea, eta haietarako laguntza ematea.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta fisikoa emateko esku-hartzeak garatzea erakunde-esparruan.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen gizarte- eta osasun-laguntza emateko esku-hartzeak garatzea erakunde-esparruan.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza psikosoziala emateko esku-hartzeak garatzea erakunde-esparruan.

Telelaguntzako deiak kudeatzea

- Telelaguntzako zerbitzuak jasotzen dituen deiak hartzea eta kudeatzea.
- Telelaguntzako zerbitzuaren irteera-deiak egitea eta kudeatzea.
- Telelaguntzako zerbitzua egiteko tresnak, teknikak eta trebetasunak maneiatzea.

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Titulu hau eskuratzen dutenek pertsonen zuzendutako zerbitzu-sektorean egiten dute lan: laguntza-zerbitzuetan, zerbitzu psikosozialetan eta etxea kudeatzen laguntzeko zerbitzuetan.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzailea instituzioetan eta/edo etxean.
- Arreta psikiatrikoko zentroetako zaintzailea.
- Gerokultorea.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen gelazainburua eta azpigelazainburua instituzioetan.
- Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetako plantako laguntzaile arduraduna.
- Etxez etxeko laguntzailea.
- Etxeko arretako laguntzailea.
- Familiako langilea.
- Hezkuntza bereziko laguntzailea.
- Laguntzaile pertsonala.
- Telelaguntzako teleoperadorea.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta antolatzea.
- Gizarte trebetasunak.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen ezaugarriak eta beharrak.
- Komunikaziorako laguntza.
- Etxeko laguntza.
- Osasun arreta.
- Lehen laguntzak.
- Arreta eta laguntza psikosoziala.
- Arreta higienikoa.
- Telelaguntza.
- Lanerako prestakuntza eta orientabideak.
- Enpresa eta ekimen sortzailea.
- Laguntza-harremana.
- Lantokiko prestakuntza.